



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 19a

88. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (19. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Antsoingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (5. or.).
- IV. 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).
  - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (5. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
  - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (6. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).
- V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (8. or.).
  - V.1. 2011ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).

V.2. 2011ko aurrekontu-emaiza bateratua (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2011ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2011n (12. or.).

**VI.** Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (15. or.).

VI.4. Transferentzia arrunten ondoriozko gastuak (15. or.).

VI.5. Inbertsioak (16. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (18. or.).

Eranskina: Udalaren 2011ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

### **I. SARRERA**

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Antsoingo Udalaren eta haren menpeko enteen 2011ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Antsoaingo udalerriak 1,91 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka, eta 2011ko urtarrilaren 1ean, 10.776 biztanle dauka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Uda-

lak erakunde autonomo bat sortua du kirola eta kultura kudeatzeko.

2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2011-12-31n
Udala	8.705.327	7.805.538	71
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	548.175	187.243	3
Bateratua, guztira	9.253.502	7.992.781	74

2011n, Udalak 360.931 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

b) Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: haren bidez

ematen ditu etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2011n
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	180.183
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	227.985

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	EAAA	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X		
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua			X		
0-3- urteko haur-eskolak	X				
Musika Eskola				X	
Hirigintza	X				X
Lorategiak	X			X	
Hiri-hondakinak			X		
Ur-hornidura			X		
Kale-garbiketa				X	
Garraio publikoa			X		
Liburutegia-ludoteka	X				
Kontsumitzailearen Arreta				X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X				
Kultura	X	X			
Kirolak	X	X			
Kirol-jardueren kudeaketa				X	
Udal-kiroldegia	X			X	
Babestutako enplegu soziala			X		
Diru-bilketa exekutiboa				X	

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.
- Antsoaingo Udalaren 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauek.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2011ko Kontu Orokorren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2011ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko memoria-rekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Antsoaingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Antsoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2011n izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Antsoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak honako elementu nagusiak dauzka:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikuszeko aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

Honako honetan datza lan honetan eragina izan duen muga: ezin izan dugu iritzirik eman Udalaren aurrekontu-egonkortasunaren printzipioen betetze-mailari buruz, 2011ko ekitaldiari dagokienez, zeren eta Nafarroako Gobernuak ez baitu eman printzipio horiek Foru Komunitateko Udaltan nola aplikatu behar den garatzen duen berarizko araua.

## IV. 2011ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoaingo Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

### IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Oraindik ere ez da amaitu 1995eko inbentarioaren gaurkotze- eta onespen-prozesua.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

## IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, esan daiteke 2011ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egin dela.

## IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 9,78 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 8,24 –hau da, 0,8 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 10,58 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapituluak dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 9,25 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 87ko betetze-maila izan

dute. Maila hori justifikatzen da bereziki inbertsioetan, langilerian eta ondasun arruntetan egindako gastu txikiagoengatik.

Aitortutako eskubideak 7,99 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 75eko betetze-maila izan dute; ehuneko horren azalpena, funtsean, tributu bidezko diru-sarreraren exekuzio txikia izan da –bereziki EIOZaren eta kirol instalazioetako erabiltzaileen kuota txikiagoen exekuzio txikia–.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta kapital-gastuak gastuen ehuneko 89 eta ehuneko 9 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 95 dira; diru-sarreraren ehuneko 41 jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 90 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 10 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	36	Tributu bidezko diru-sarrerak	58
Bestelako gastu arruntak	52	Transferentziak	41
Inbertsioak	9	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	1
Finantza-zama	3	Zorpetzea	-
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren bete-tzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2010ekoarekiko alderaketa:

	2010	2011	Aldaketaren ehunekoa, 2011/2010
Aitorturiko betebeharrak, guztira	9.978.369	9.253.502	-7
Likidatutako eskubideak, guztira	9.205.860	7.992.781	-13
Gastuen exekuzioa (%)	86	87	
Diru-sarreraren betetzea (%)	79	75	
Ordaindutakoa (%)	94	95	
Kobratutakoa (%)	86	92	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	8.118.892	8.211.429	1
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	8.073.977	8.180.004	1
Inbertsio errealen gastuak (6 eta 7)	1.693.868	850.510	-50
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	165.519	191.563	16
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.732.277	7.653.356	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	4.350.064	4.650.423	7
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.473.583	339.425	-77
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	51	41	
Gastu arruntaren gaineko tributu bidezko diru-sarrerak (%)	54	57	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-606.990	-1.069.158	76
Aurrekontu-emaizta doitua	-642.777	-980.203	52
Aurrezki gordina	-341.700	-526.648	54
Finantza-zama (3tik 9ra)	208.484	222.988	7
Aurrezki garbia	-550.184	-749.636	36
Zorpetze-maila (%)	3	3	
Zorpetze-muga (%)	-4	-7	
Zorpetze-ahalmena (%)	-7	-10	
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.078.408	2.790.629	-32
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.087.153	223.953	-79
Zor bizia	1.698.063	1.506.500	-11
Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia (%)	22	20	
Biztanle bakoitzeko zor bizia	160	140	-13
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	-4	-3	

2011n, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 7 gutxiago gastatu du eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 13 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko hazkundea izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko hiru egin duten behera. Tributu izaerako diru-sarrerak, ordea, ehuneko 6 egin dute gora.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, milioi batekoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak izan.

Aurrekontu-emaizta doitua -0,9 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, -0,6 milioikoa izan zen.

Defizit hori sortu da diru-sarrera arruntak ez direlako izan funtzionamendu gastuak eta finantza-zama finantzatzeko behar adinakoak. Halaber, kapital bidezko diru-sarrerak ez dituzte finantzatzen egindako inbertsio guztiak.

2011n, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia negatiboak izan ziren, eta haien zenbateko negatiboa ehuneko 54 eta ehuneko 36 hazi ziren, hurrenez hurren, 2010arekin alderatuta.

Zorpetze-maila ehuneko 3koa da, eta bere muga negatiboa da, ehuneko 7koa hain zuzen; horrenbestez, ez du zor berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Diruzaintzako guztizko gerakina 2,7 milioikoa da, eta ehuneko 32 egin du behera 2010ekoarekin alderatuta. Gastu arruntetara bideratutakoa, halaber, ehuneko 79 beheratu da, 1,1 milioikoa izatetik 0,2 milioikoa izatera iragan baita.

Epe luzeko zorra 1,5 milioikoa da, eta ehuneko 11 egin du behera 2010ekoarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 140 eurokoa dena, guztira? entitatearen diru-sarrera arrunten guztizkoaren ehuneko 20 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 75eko lege-mugaren azpitik dago.

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Antsoingo Udalak bere finantza-egoera gero eta gehiago hondatzen ari dela erakusten du; egoera horri, orain arte, konponbidea bilatu zaio azken urteotan udal-barruti honetan abian jarri diren hirigintza-jarduera handietatik jasotako baliabideei esker.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak. Horri dagokionez, Udalaren oroitidazkiak udal zerbitzuen kostuei eta haien estaldura-mailari buruzko azterlan bat jasotzen du.

Halaber, Udalaren kontu-hartzaileak oroitidazkian agerian jartzen du ezin izan dela 2011ko ekitaldian oreka finantzarioa lortu, nahiz eta gastuari eusteko arauak aplikatu; "hori dela eta, udalbatzak neurri zehatzak hartu beharko ditu egoera honi konponbidea emateko".

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek honakoak nabarmendu nahi ditu: krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurre-

kontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeak eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datozen kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen 2010eko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantzizko aholku hauek oraindik gauzatzeke daude, txosten honen IV. atalean berresten den bezala:

- *Aurrekontua indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan dadin.*
- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratzea burutzea.*

Azkenik, Udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor gisa, lehentasunezkoztat eta presakotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak gara dezala nola aplikatu behar zaizkien Nafarroako toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan jasotako aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak, haien aurrekontuetan, eta, horrenbestez, finantza-egoeran printzipio horiek eragin ditzaketen inplikazio praktikoak direla eta.

#### V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2011ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.



## V.1. 2011Ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Bete- takoa (%)	Ordain- ketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	3.712.531		3.712.531	3.347.917	89	3.300.158	47.759	1
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.609.006	27.767	4.636.773	4.258.563	88	3.899.843	358.720	8
3. Gastu finantzarioak	64.785	-11.429	53.356	31.425	51	31.425		0
4. Transferentzia arruntak	623.875	600	624.475	573.524	93	568.881	4.643	1
6. Inbertsio errealak	578.836	789.489	1.368.326	850.510	74	836.646	13.865	2
7. Kapital-transferentziak								
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak	192.543		192.543	191.563	100	191.563		0
Guztira	9.781.577	806.427	10.588.004	9.253.502	87	8.828.516	424.986	5

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikusp.	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.644.091		2.644.091	2.288.065	84	2.025.632	262.433	11
2. Zeharkako zergak	579.404		579.404	149.606	32	99.784	49.822	33
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.964.300		2.964.300	2.212.572	68	2.048.662	163.910	7
4. Transferentzia arruntak	3.134.244	38.100	3.172.344	2.950.436	98	2.786.490	163.947	6
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	110.701		110.701	52.676	90	49.531	3.145	6
6. Inbertsio errealak besterentzea								
7. Kapital transferentziak	348.836		348.836	339.425	98	336.408	3.017	1
8. Finantza-aktiboak		768.327	768.327					
9. Finantza-pasiboak								
Guztira	9.781.577	806.427	10.588.004	7.992.781	75	7.346.506	646.275	8

## V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	9.205.860	7.992.781
- Aitortutako betebeharrak	9.978.369	9.253.502
= Aurrekontu-emaiza	-772.509	-1.260.721
<b>Doitzeak</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	100.712	165.899
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	6.529	94.497
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak		
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	223.916	351.920
= Aurrekontu-emaiza doituia	-642.777	-980.203

## V.3. V.3 DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2011ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	2.207.093	1.571.720
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.296.245	648.942
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.344.740	1.434.901
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	72.974	74.253
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	506.866	586.376
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	805.682	574.024
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	582.891	424.986
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.805	
(+) Diru-sarreraren itzulketak	1.023	3.690
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	739	4.673
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	220.702	150.021
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.670.469	1.789.504
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	6.529	3.430
= Diruzaintza-gerakina, guztira	4.078.408	2.790.630
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak	100.712	114.378
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	2.890.543	2.452.298
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.087.152	223.953

## V.4. 2011ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	25.976.317	26.511.666
1 Ibilgetu materiala	25.049.184	25.631.290
2 Ibilgetu ez-materiala	470.403	510.375
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	438.657	351.928
4 Herri-ondasunak	15.731	15.731
5 Finantza-ibilgetua	2.342	2.342
C Zirkulatzaila	5.829.408	6.925.740
8 Zordunak	2.158.096	2.713.959
9 Finantza-kontuak	1.797.050	2.674.080
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	1.874.262	1.537.701
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>31.805.725</b>	<b>33.437.406</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	29.720.528	30.932.922
1 Ondarea eta erreserbak	20.071.796	21.609.498
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.648.732	9.323.424
C Epe luzeko hartzekodunak	1.506.500	1.698.063
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	1.506.500	1.698.063
D Epe laburreko hartzekodunak	578.697	806.421
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	578.697	806.421
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>31.805.725</b>	<b>33.437.406</b>

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2011N

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.587.612	1.552.956
61 Langileen gastuak	3.419.979	3.447.194	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	460.317	566.157
62 Gastu finantzarioak	31.425	45.005	72 Produktzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.646.209	1.536.210
63 Zergak	30.624	25.980	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	461.466	449.280
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	4.155.876	4.001.921			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.950.437	3.211.433
67 Transferentzia arruntak	573.524	598.881	77 Kapitalaren gaineko zergak	329.996	313.945
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	220.974	102.295
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	1.385.858	1.387.582	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.940.277	1.774.287
Guztira	9.597.287	9.506.564	Guztira	9.597.287	9.506.564

## Ekitaldiko emaitzak

	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	1.940.277	1.774.287	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0
Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	81.525	131.141
Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	15.510	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	105.445
Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.874.262	1.537.701
	1.955.787	1.774.287	Guztira	1.955.787	1.774.287

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriak buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011ko aurrekontua 2011ko martxoaren 30ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Atzerapen hori udal taldeen arteko adostasun faltari zor izan zitzaion.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeke eta formalki onesteke dago.

- Udalak bere ibilgetuko elementuen prezioaren beharpena erakusten duela kontabilitatean, eta 1,4 milioiko zuzkidura eragin du horrek 2011n. Halaber, oroitidazkiak zerbitzuen kostuari eta kostu horren finantziarioari buruzko analisi bat badauka.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duten 2011ko fakturarik, 2012ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak hornitzaileei ordaintzeko epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutzako interesik ordaindu lege ezarritakoa baino epe luzeagoan hornitzaileei eginiko ordainketengatik.

- Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago. Horien artean, nabarmentzekoa da kirol instalazio berriak eraiki dituen enpresaren erreklamazioa, atzemandako akatsak konpontzeko obren ordeko betearazpenaren ondoriozko gastuen likidazioaren aurkakoa (0,42 milioi euroko gastuak dira); eta arkitekto baten erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordeko betearazpenaren eta sortutako kalte-galeren ondoriozko gastuen likidazioaren aurkakoa (0,4 milioi euro dira).

- Udalaren epe luzeko zorraren amortizazio-egutegia honako taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2012	120.541,47	8	8
2013	126.907,06	8	16
2014	129.968,26	9	25
2015	131.259,18	9	34
2016-2020	562.632,08	37	71
2021-2025	435.191,70	29	100
Guztira	1.506.499,75	100	

### Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan daitezen.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabekoak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.*

### VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,34 milioi eurokoa da; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 36 eta gastu arrunten ehuneko 41.

2010eko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 1 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren ehunekoak
	2010	2011	
Goi-karguak	43.614	42.251	-3
Funtzionarioak	1.341.102	1.351.929	1
Langile finkoak	215.290	214.416	0
Aldi baterako lan-kontratupekoak	749.350	684.629	-9
Bestelako langileak	41.026	49.907	22
Gizarte zamak	992.841	1.004.785	1
1. kapitulua, guztira	3.383.223	3.347.917	-1

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa onetsi zuen, 64 lanposturekin. 20 lanpostu hutsik daude eta beste hiru kasutan lanpostu-erre-

serba dago. 19 lanpostu aldi baterako kontratuekin daude beteta. Hona horri buruzko taulak:

Zenbat	Lanpostuak	Lanean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	54	33	21	17
Lan-kontratupekoak	9	7	2	2
Behin-behineko lanpostua	1	1	-	-

2011ko abenduaren 31n, 74 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde Autonomoetan, eta era honetara banatuta zeuden:

Langileak	Udala	Gazte-Berriak	Patronatua	Guztira
Funtzionarioak	36		1	37
Lan-kontratudun finkoak	7			7
Aldi baterako lan-kontratudunak	28		2	30
Guztira	71		3	74

Aldi baterako langileak, funtsean, gaixotasu-nengatiko bajak, lanaldi-murrizketak, lanpostu hutsak eta abar betetzeko kontratatutakoak dira.

2010eko ekitaldiarekin alderatuta, hirutan jaitsi da enplegatu-kopurua.

Udalaren berariazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Administrazio orokorra	5
Administrazio finantzarioa	3
Zerga-administrazioa	3
Udaltzaingoa	19
Haur-eskola	15
Ikastetxe publikoa	2
Euskara zerbitzua	0
Parkeak eta lorategiak	4
Mantentze-lanetako langileak	9
Enplegua sustatzea	1
Berdintasuna	1
Kirol instalazioak	9
Guztira	71

Hau da, udaltzaingo-zerbitzuaren eta haur eskolaren artean langile guztien ehuneko 48 egiten dute.

Udalak honako araua onetsi zuen: "Antsoaingo Udalaren eta bere patronatuen zerbitzuko langile funtzionarioen lan-baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako". Ganbera honek Udalari buruzko txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala eta Udaleko kontu-hartzaileak oroitidazkietan azaldu duen bezala, hitzarmen honen 10. artikuluan arautzen den jaiegunetarako lanaren ordain ekonomikoa –funtsean udaltzaingoari eta kirol-instalazioetako langileei aplika dakiokkeen– Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa baino handiagoa da, bereziki jaiegun ez diren egunetako lanaldien zati bat jaiegun gisa hartzen baitu.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2011n izoztu dira, eta egin-dako atxikipenak zuzenak dira.

Azkenik, adierazten dugu, kontu-hartzaileak oroitidazkian adierazi bezala, langileen 2011ko ordainsarien arloko aurrezkiak (65.000 euro direla kalkulatu da) mailegu baten alde zuzeneko amortizazio partzialean aplikatu direla.

Deskribapena	Kontratu mota	Esleitzeko prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa	2011n betetakoa
Hiriko kolonien zerbitzua ematea	Laguntza	Kreditu-erreserba eta faktura	10.167	9.785

Halaber, Musika Eskolaren 2010-2011 ikasturterako programaren garapenerako laguntza teknikoaren kontratua nola bete den aztertu da. Kontratu hori aurrez adjudikatuta zegoen eta 2011n amaitu zen.

Espediente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela.

*Hona gure gomendioak:*

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzeko delako egiaztatu ahal izateko.*

- *Udalaren lan-baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaieguntzat hartzen denari dagokienez.*

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 4,25 milioi euro egin dute 2011ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 46 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 52 egiten dute.

2010. urtearen aldean, ehuneko 4 egin dute gora. "Beste enpresa batzuek eginiko lanak" kontzeptua da 2011n gehien hazi dena. 0,2 milioi egiten du eta nagusiki kirol jarduerak eta kultur jarduerak baloratzeko, peritatzeko eta kudeatzeko lanei dagokie.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espediente hau berrikusi da (zenbatekoa BEZa gabe):

Egiaztatu dugu saioetara joateagatik kalte-ordainak izoztu egin direla 2011ko ekitaldirako. Gastu horrek 2011ko ekitaldian gora egitearen arrazoa da ekainetik aurrera lau zinegotzi gehiago badaudela horrelako ordainsariak jasotzen dituztenak.

### VI.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,57 milioitan egin dute gora. 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 6 eta gastu arrunten ehuneko 7 egiten dute. Hona haiei buruzko xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren ehunekoa
	2010	2011	2011/2010
Udalei	5.857	0	-100
Zerbitzu administratiboen batasunei	2.604	2.312	-11
Mankomunitateei	401.091	408.168	2
Familiei	32.874	17.990	-45
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	151.455	140.015	-8
Bestelako transferentziak	4.999	5.039	1
Transferentzia arruntak	598.881	573.524	-4

2010. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 4 jaitsi dira.

2011n emandako diru-laguntza nagusiak mankomunatatutako zerbitzuak finantzatzekoak izan ziren; izan ere, zerbitzu horietara bideratu da kapitulu honetako gastu guztien ehuneko 71.

2008tik, Udalak ordenantza orokor bat dauka honako xedeetarako ematen diren diru-laguntzei buruz: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, laguntza humanitarioa eta arlo soziala. Hala ere, 2011n, zenbait deialdi publiko egin dira kultura eta lankidetzaren arloetako jarduerak egiteko. Gainera, beste diru-laguntza batzuk ere badaude, zuzenean ematen direnak (ikastetxea, parrokiako Caritas, Gutxitu Fisikoen Elkarte eta taxi-bonoa,

Errege-kabalgata, Olentzero, Erraldioen eta Kiliki-en Konpartsa).

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

#### VI.5. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,37 milioi) ehuneko 62 bete da, eta 0,85 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 9.

2010arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 50 –hau da, 0,84 milioi– egin dute behera.

Honakoak izan dira 2011n eginiko inbertsioetako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Argiteria publikoa berritzea	227.413
Liburutegiko ekipamendua	140.000
Haur eskolak	106.192
Komun auto-garbigarria	50.900
Liburutegiko lurzorua berritzea	58.859

2011n adjudikatutako honako espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	2011n betetakoa
Argiteria publikoa berritzea, 1 eta 2	Obra	Negoziatua*	188.083	2	185.074	183.929
Liburutegiko altzariak	Hornidura	Irekia*	118.644	15	94.915	118.644

\* Europar publikitatearen egin gabe; eskaintza onena.

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla. Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu altzarien horni-

durarako kontratuan betetzeak adjudikazio-prezioa ehuneko 25 gaintu duela, baina izapidetean ez dagoela jasota kontratua aldatzeko behar den espedientea. Hala eta guztiz ere, gastu handiago hori altzari-hornidura handiagoa egin izateari zor zaio.



*Hona gure gomendioak:*

- *Kontratu baten betetzea adjudikazio prezioaren ehuneko 10 gainditzen duenean, behar den kontratu-aldaketa izapidetzea.*

## VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,99 milioioak izan dira; ehuneko 96 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko 4, berriz, kapital-eragiketei. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 75ekoa izan da.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,65 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (2,95 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketak kapital-transferentzietara dagozkie, eta 0,34 milioi euro egiten dute.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2011ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 13 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea
	2010	2011	2011/2010
1. Zuzeneko zergak	2.204.448	2.288.065	3
2. Zeharkako zergak	94.986	149.606	57
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.050.629	2.212.572	8
4. Transferentzia arruntak	3.211.433	2.950.437	-8
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	170.870	52.676	-69
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.732.277	7.653.356	-1
6. Inbertsio errealeen besterentzeak	18.658	-	-100
7. Kapital-transferentziak	1.424.925	339.425	-77
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.473.583	339.425	-76
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	9.205.860	7.992.781	-13

Nabarmentzekoa da behera egin dutela transferentzia arruntek –ehuneko 8, batez ere Nafarroako Gobernuarenak– eta kapital-transferentziek –ehuneko 77–, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsaren ekarpenak desageretzearen ondorioz.

3. kapituluaren barruan, nabarmentzekoa da kirol instalazioetako erabiltzaileen kuoten kontusaila gutxi bete dela. Izan ere, 1,79 milioiko aurreikuspenak bazeuden ere, 1,02 milioi likidatu dira; hau

da, ehuneko 57. Horri dagokionez, oroitidazkian esaten den bezala, 2011ko amaieran, 724 pertsonatan egin du behera instalazio horietako abonatuaren kopuruak. Beherakada hori justifikatzen dute bai krisi ekonomikoak, bai Berriobeitiko Udalaren instalazioek eragin duten lehia. Udala hainbat kudeaketa modu ari da aztertzen egoerari konponbidea emateko, ustiaketan oreka aurkitze aldera.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa
	2010	2011	2011/2010
Lurraren kontribuzioa	1.187.298	1.221.198	3
Ibilgailuak	449.280	461.466	3
Lurren balioaren igoera	313.945	329.996	5
Jarduera Ekonomikoen Gaineko	253.926	275.405	8
EIOZa	94.986	149.606	57
Guztira	2.299.435	2.437.671	6

Aldaketa handienak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan (EIOZa) ikusten dira, zeren eta ehuneko 57 egin baitu gora –54.000 euro, gutzira–. Hala eta guztiz ere, zerga horretan aurrekontuetan jasotakoaren ehuneko 26 baizik ez da betetzen.

Zerga-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren Kontribuzioa	0,1854	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Eguneratzearen koefizientea	2,8 eta 3,4 bitartean	2 eta 3,8 bitartean
Zergapetze-tasa	12,28	8 eta 20 bitartean
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek, ia izoztu egin dira 2010. urtearekin alderatuta.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

*Hona gure gomendioak:*

- *Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, diru-sarreraren aurrekontua egitean zerga-bilketarako benetako aukerak kalkulatzeko saiatzea.*

- *Kirol instalazioak kudeatzeko modu egokiaren buruzko azterketa-prozesua amaitzea, kontuan hartuta nolako eragina daukan udal finantzetan eta zein den egungo egoera ekonomiko orokorra. Horri dagokionez, zeharkako kudeaketa izan liteke, une hauetan, formularik egokiena.*

## VI.7. HIRIGINTZA

Antsoaingo Udalak bere baliabideekin garatzen ditu hirigintza-lanak, baina hirigintza-aholkua kanpoan hatzen du, arkitekto baten eskutik, eta horrek, 2011n, 54.000 euroko gastua ekarri dio. Nabarmenezkoa da arkitekto horren kontratua 1992koa dela, eta ordutik ez dela ez eguneratzerik ez hautapen-prozedurarik egin.

Antsoaingo Udalaren Antolamendu Plana 1997an onetsi zen, eta ia erabat garatuta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. 2009an, Udala bere plana aztertzen

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2011n egin da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

hasi zen. 2012an, Udalaren Osoko Bilkurak udal plan berria eta dagokion ingurumen-eraginaren azterlana hasiera batez onetsi ditu, eta bi hilabetez jarri ditu jendaurrean.

Urtean zehar hirigintzako espediente bakarra izapidetu eta onetsi da. Eraikin bateko jabekideek sustatutako xehetasun-azterlan bat da.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondareari dagokion berariazko inbentario eta erregistrarik, nahiz eta Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen baliabide atxikien jarraipena egiten duen. Horri dagokionez, adierazi beharra dago 1994tik 2011ra, Udalak, ondarearen besterentzetik eta hirigintza-aprobetxamenduetatik, 17,25 milioi hartu dituela, eta 2,45 milioiko zenbatekoa egiten duten inbertsio berrien finantzaketa aplikatzeke dagoela.

*Hona gure gomendioak:*

- *Arkitektoaren laguntza-zerbitzurako kasuko hautapen-prozesua egitea.*

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzaila arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (19. or.).
- II. Helburua (22. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (22. or.).
- IV. 2011ko kontu orokorrari buruzko iritzia (22. or.).
  - IV.1. Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorra (23. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (23. or.).
  - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2011ko abenduaren 31n (23. or.).
  - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (25. or.).
- V. Udalaren 2011ko kontu orokorraren laburpena (26. or.).
  - V.1. 2011ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orri (26. or.).
  - V.2. 2011ko aurrekontu-emaitza bateratua (27. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2011ko abenduaren 31n (27. or.).

V.4. 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (28. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2011n (29. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (30. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (30. or.).

VI.2. Langileak (30. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (32. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (33. or.).

VI.5. Inbertsioak (34. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (35. or.).

VI.7. Hirigintza (37. or.).

VI.8. Erakunde autonomoak (38. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean:


[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

### I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren menpeko enteen 2011ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko udalerrak 5,5 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka, eta 2011ko urtarrilaren 1ean, 13.871 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaketa ondoko grafikoan agertzen da:



2011ko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2011-12-31n
Udala	10.380.968	12.463.077	109
Ardoi Kirol Patronatua	537.268	506.483	-
Kultura Patronatua	497.807	469.136	-
Musika Eskolaren Patronatua	479.812	493.393	14
Bateratzearen doitzeak	-631.031	-631.031	-
Bateratua, guztira	11.264.824	13.301.058	123

Honakoa izan da, guztira, Udalak bere erakunde autonomoei 2011n eginiko ekarpena: Ardoi Kirol Patronatuari, 157.738 euro; Kultura Patronatuari, 279.144 euro; eta Musika Eskolaren Patronatuari, 194.149 euro. Ekarpene hauek, orokorrean, ehuneko 17 egin dute behera 2010ean jasotakoekin alderatuta.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta horrek ematen ditu uraren ziklo integra-

laren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoa nahiz taxikoa eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Eskualdeko garraioaren zerbitzuak 215.740 euroko kostua ekarri dio Udalari.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	EEAA	Mankomunitate a/Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetza programak				X	
Berdintasun-zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X				
Kirolak	X	X			
Kultura	X	X			
Musika eskola		X			
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri-hondakinak			X		
Garraio Publikoa			X		
Haur hezkuntzako zentroaren Zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Kultura-etxearen kudeaketa	X			X	
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X	
Kale-garbiketa				X	
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol-instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Udal ludoteka	X			X	
Kulturetxeko taberna-kafetegiaren kudeaketa					X
Gazteen lokala-gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki entitateari 2011ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutua.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- Zizur Nagusiko Udalaren 2011ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2011ko Kontu Orokorren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2011ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langilei lan honetan emandako laguntzagatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorraren araukotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Zizur Nagusiko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2011ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak eta bere erakunde autonomoek (aurrerantzean, EEAA) 2011n izandako jarduera finantzarioari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-mailaz.

- Udalaren finantza-egoera 2011ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2010eko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko

enteek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Zizur Nagusiko Udalaren 2011ko ekitaldiko kontu orokorrak honako elementu nagusiak dauka:

- Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu Orokorren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikus-tekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomo-  
ei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

Honako honetan datza lan honetan eragina izan duen muga: ezin izan dugu iritzirik eman Udalaren aurrekontu-egonkortasunaren printzipioen betetze-mailari buruz, 2011ko ekitaldiari dagokienez, zeren eta Nafarroako Gobernuak ez baitu eman printzipio horiek Foru Komunitateko udaltan nola aplikatu behar den garatzen duen berarizko araua.

## IV. 2011ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau ateratu dugu:

#### IV.1. UDALAREN 2011ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeke dago.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, 2011ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

#### IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2011ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 19,7 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko bat –hau da, 19,9 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 19,9 milioikoak dira.

Aldaketak kreditu-gerakinen gehikuntzei, kreditu bereziei eta kreditu-osagarriei dagozkie; hain zuzen ere, ondasun arrunten eta zerbitzuen eta

inbertsio errealen kontusail batzuk handitzeko erabili direnei.

Aitortutako betebeharrak 11,3 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 57ko betetze-maila izan dute. Betetze txiki hori zor zaio gutxi bete izateari transferentzia arrunten kapitulua –ehuneko 46– eta, bereziki, inbertsio errealen inbertsio errealen kapitulua –ehuneko 8–. Inbertsioen kapitulu honi dagokionez, ez da egin 2011rako aurrekontuetan jasotako obretako bakarra ere. Hori dela eta, 7 milioiko gastua aurreikusten zen arren, 0,6 milioiko gastua egin da.

Aitortutako eskubideek 13,3 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 67koa izan da. Portzentaje hori azaltzen da, funtsean, tributuen eta transferentzia arrunten kapituluetan betetzea handia izan delako. Betetze handi horrek kontrastea egiten du kapital-transferentzien kapituluetan izandako betetze txikiarekin –ehuneko 52koa– eta, bereziki, pasibo finantzarioen aldaketaren betetze deusezarekin –ez da gauzatu inbertsioak finantzatzeko aurreikusita zegoen mailegua, 6 milioi eurokoa–.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsioak gastu guztien ehuneko 94 eta ehuneko 5 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 97 dira; diru-sarreraren ehuneko 35, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 32 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 3 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	41	Tributu bidezko diru-sarrerak	61
Bestelako gastu arruntak	54	Transferentziak	35
Inbertsioak	5	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	4
	100		100

Hona Udalaren 2011rako aurrekontuaren bete-tzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2010ekoare-kiko konparazioa:

	2010	2011	Aldea, portzentajea 2011/2010
Aitorturiko betebeharrak, guztira	19.924.421	11.264.823	- 43
Likidatutako eskubideak, guztira	13.089.829	13.301.058	2
Gastuen exekuzioa (%)	87	57	
Diru-sarrerren betetzea (%)	45	67	
Ordaindutakoa (%)	95	92	
Kobratutakoa (%)	91	95	
Gastu arruntak (1etik 4ra)	10.787.184	10.637.509	- 1
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	10.787.184	10.637.509	- 1
Inbertsio errealen gastuak (6 eta 7)	9.119.836	617.314	- 93
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	7.400	10.000	35
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	11.187.725	12.900.432	15
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.905.753	8.097.650	37
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.881.198	390.217	-79
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8tik 9ra)	20.907	10.408	- 50
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	52	35	
Gastu arrunten gaineko tributu bidezko diru- sarrerak (%)	55	76	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-6.848.098	2.035.827	130
Aurrekontu-emaizta doituia	-3.883.923	2.162.670	156
Aurrezki gordina	390.541	2.262.924	479
Finantza-zama (3tik 9ra)	0	0	
Aurrezki garbia	390.541	2.262.924	479
Zorpetze-maila (%)	0	0	
Zorpetze-muga (%)	3,49	17,54	
Zorpetze-ahalmena (%)	3,49	17,54	
Diruzaintza-gerakina, guztira	26.339.898	28.241.644	7
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.190.848	3.106.370	161
Zor bizia	0	0	

2011n, Udalak ehuneko 43 gutxiago gastatu du 2010ean baino; hau da, 8,7 milioi gutxiago. Beherakada hori azal daiteke, funtsean, inbertsio gutxiago egin delako. Izan ere, inbertsioak 0,6 milioioak izan dira; 2010ean, aldiz, 9,1 milioioak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, aldaketa oso apala izan da, zeren eta ehuneko 2 hazi baitira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gehien hazi den kapitulu zeharkako zergena da (EIOZa), zeina 2010ean 0,3 milioioa izatetik 2011n 2,6 milioioa izatera iragan baita. Igoera hori Ardoi sektorean egin diren

hirigintza-jarduketek justifikatzen dute. Nabarmendu behar dugu 2011n hirigintza-jarduketek bidez lortutako eskubideak ez direla errepikatzeak.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 15 egin dute gora. Gastu arrunten beherapena azaltzeko, kontuan hartu behar da langileen kapituluko gastuek behera egin dutela. Diru-sarrerei dagokienez, zeharkako zergen kapitulan izandako hazkundearekin justifikatzen da.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa 2 milioi euro positiboa da; aurreko urtean, aldiz, 6,8 milioi



negatiboa izan zen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoa eta gehiago direla izaera bereko gastuak finantzatzeko.

Aurrekontu-emaizta doitua 2,2 milioi euroko superabita agertzen du ekitaldiaren itxieran; emaitza hori heldu da, batetik, zeharkako zergak handitu izatetik eta, bestetik, 2011rako aurrekontuetan jasotako obrak ez egitetik. 2010ean, emaitza 3,9 milioi euroko defizita izan zen.

2011n, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia 2,3 milioi euro positiboak dira; hartara, 2010eko balioak hobetu dira (orduan, 390 mila euro positiboa izan zen).

Zorpetze-maila ehuneko zerokoa da, eta bere muga negatiboa da, ehuneko 18koa; horrenbestez, Udalak zor berria hartzeko gaitasun ekonomiko dauka.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 28,2 milioi eurokoa da, eta 2010ean 26,3 milioi eurokoa izan zen. Gastu arruntetarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko gaitasuna neurtzen duen adierazlea 3,1 milioi positiboa da, eta nabarmen handitu da 2010ekoaren aldean, orduan magnitude hori 1,2 milioiko balioa baitzuen; hazkunde hori sortu da, funtsean, aurrekontu-emaizta doitua handitzen duten eta arestian aipatu ditugun arrazoiengatik.

Udalak ez du epe luzeko zorrik.

Balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, abenduaren 31n, 28,4 milioira iristen dira; zenbateko hori 25,9 milioikoa izan zen 2010ean.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Udalak egoera finantzario saneatua dauka, batez ere udal barrutian azken urteetan garatutako hirigintza jarduera garrantzitsuetatik lortutako diru-sarreraren ondorioz, urte hauetan eginiko kudeaketa zuhurraren ondorioz eta 2011n eginiko inbertsio txikiaren ondorioz. Udalak ez du epe luzeko zorrik eta oso nabarmen zekoak diren funts likidoak dauka.

2011ko ekitaldian diru-sarrera arruntak nahikoa izan badira ere bai emandako zerbitzuen funtzionamendu gastuak bai inbertsio-eragiketarako finantzatzeko, hori posiblea izan da Ardoiko garapen berrietatik lortu diren diru-sarrerengatik, baina diru-sarrera horiek ez dira errepikatzeak. Diru-sarrera horien eragina alde batera utzita, ikusten da diru-sarrera arruntak, ekitaldi honetan, 0,36 milioi txikiagoak izan zirela gastu arruntak baino. Horrenbestez, aurrekontu-emaizta doitua 0,85 milioi defizitarioa izan zen gutxi gorabehe-

ra, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 93 mila euroko superabita baino ez zuen izanen.

Horregatik, uste dugu Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onetsi behar duela, gastu arruntei eusteko eta ohiko baliabideak sortzeko gaitasuna handitzeko aukera emanen diona; baina hori guztia ahaztu gabe kudeaketa hobetzeko neurriak, besteak beste honako alderdi hauetan: tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioak lehenestea, diru-laguntzen politika berraztertzea, zenbait zerbitzuren neurria aztertzea eta derrigorrezkoak izan gabe emandako zerbitzuek beren burua finantzatzea.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arrisku-ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plan-gintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 2010eko ekitaldiari buruz egindako txostenari dagokionez, orduan emandako honako gomendio garrantzitsuak ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea.*

- *Urte urte onartzea Udalaren aurrekontua.*

- *Patronatu guztiek hirugarrenekin eginiko eragiketen aitorpenak aurkeztea.*

*Oraindik betetzeko daude, besteak beste, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, aholku garrantzitsu hauek, besteak beste:*

- *Udal-inbentarioa eguneratzea eta onestea.*

- *Patronatuak udal-zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.*

Azkenik, udal honetan eta Nafarroako tokiko sektore publiko osoan eragina duen alderdi orokor gisa, lehenasunezko zat eta presakotzat jotzen dugu Nafarroako Gobernuak gara dezala nola aplikatu behar zaizkien Nafarroako toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan jasotako aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak, haien aurre-

kontuetan, eta, horrenbestez, finantza-egoeran printzipio horiek eragin ditzaketen inplikazio praktikoak direla eta.

### V. UDALAREN 2011ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2011ko kontu orokorraren kontabilitateko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

#### V.1. 2011ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

##### Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	5.301.110	-	5.301.110	4.610.140	87	4.515.596	94.544	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	6.205.929	80.413	6.286.342	5.584.683	89	4.993.705	590.978	11
3. Gastu finantzarioak	60.600	-	60.600	-	0	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	1.000.199	-47.790	952.409	442.686	46	348.183	94.503	21
6. Inbertsio errealak	7.045.200	218.764	7.263.964	617.314	8	502.166	115.148	19
7. Kapital-transferentziak	-	-	-	-	0	-	-	-
8. Finantza-aktiboak	54.000	-	54.000	10.000	19	10.000	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>19.667.038</b>	<b>251.387</b>	<b>19.918.425</b>	<b>11.264.823</b>	<b>57</b>	<b>10.369.650</b>	<b>895.173</b>	<b>8</b>

##### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.741.900	-	2.741.900	3.120.865	114	2.958.556	162.309	5
2. Zeharkako zergak	2.703.000	-	2.703.000	2.624.633	97	2.415.657	208.976	8
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.383.027	-	2.383.027	2.352.152	99	2.297.079	55.073	2
4. Transferentzia arruntak	4.544.052	-	4.544.052	4.310.629	95	4.132.620	178.009	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	522.015	-	522.015	492.154	94	490.952	1.202	0
6. Inbertsio errealeen besterentzea	-	-	-	-	-	-	-	-
7. Kapital transferentziak	749.900	-	749.900	390.217	52	355.622	34.595	9
8. Finantza-aktiboak	54.000	251.387	305.387	10.408	3	10.408	-	-
9. Finantza-pasiboak	5.969.144	-	5.969.144	-	-	-	-	-
<b>Guztira</b>	<b>19.667.038</b>	<b>251.387</b>	<b>19.918.425</b>	<b>13.301.058</b>	<b>67</b>	<b>12.660.894</b>	<b>640.164</b>	<b>5</b>

## V.2. 2011ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010	2011
+ Aitortutako eskubideak	13.089.829	13.301.058
- Aitortutako betebeharrak	19.924.421	11.264.823
= Aurrekontu-emaiza	-6.834.592	2.036.235
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	23.727	-
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	1.619.030	108.530
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak	1.355.376	17.905
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaiza doituia	-3.883.923	2.162.670

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA 2011ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2010	2011
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.405.84€	723.91€
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.132.01€	640.164
(+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	516.51€	525.932
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	258.537	49.14€
(+ Ordainketen itzulketak	-	57€
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-401.341	-467.60€
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-99.88€	-24.292
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	1.286.37€	1.117.82€
(+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.058.487	895.17€
(+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	441	3.132
(+ Diru-sarreraren itzulketak	-	2.96€
(+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	227.44€	216.564
(+ Diruzaintzako funts likidoak	25.977.94€	28.435.557
(+ Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	242.484	200.00€
= Diruzaintza-gerakina, guztira	26.339.89€	28.241.644
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	79.311	79.311
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	25.069.73€	25.055.96€
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.190.84€	3.106.37€

## V.4. 2011ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Ibilgetua	27.587.188	70.770.567
1 Ibilgetu materiala	27.024.157	26.557.792
2 Ibilgetu ez-materiala	442.017	437.888
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegitura eta ondasunak	119.033	43.772.906
4 Herri-ondasunak	-	-
5 Finantza-ibilgetua	1.981	1.981
C Zirkulatuzailea	29.666.039	27.901.978
8 Zordunak	1.215.817	1.907.071
9 Finantza-kontuak	28.450.222	25.994.907
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>57.253.227</b>	<b>98.672.546</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2011	2010
A Funts berekiak	56.111.105	97.286.284
1 Ondarea eta erreserbak	36.289.561	79.707.258
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	2.577.527	336.472
3 Kapitaleko diru-laguntzak	17.244.017	17.242.554
C Epe luzeko hartzekodunak	-	-
4 Prestamenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	-	-
D Epe laburreko hartzekodunak	1.142.122	1.386.262
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.117.830	1.286.376
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	24.292	99.886
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>57.253.227</b>	<b>98.672.546</b>

## V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2011n

## Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	1.956.719	2.115.402
61 Langileen gastuak.	4.717.960	4.919.515	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	820.969	733.061
62 Gastu finantzarioak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	4.594.397	2.242.029
63 Zergak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	626.347	603.386
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.472.897	5.411.401			
65 Gizarte-prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.310.629	4.932.147
67 Transferentzia arruntak	446.652	466.268	77 Kapitalaren gaineko zergak	524.754	452.373
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	455.373	129.064
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	2.651.679	410.278	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
Guztira	13.289.188	11.207.462	Guztira	13.289.188	11.207.462

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2011	2010	Deskribapena	2011	2010
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	2.651.679	410.278
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	46.525	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	27.627	73.806	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	2.577.527	336.472	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
Guztira	2.651.679	410.278	Guztira	2.651.679	410.278

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTE- EI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2011ko ekitaldirako aurrekontuari 2011ko urtarilaren 31ko Osoko Bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2011ko apirilaren 12an sartu zen indarrean, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean. Atzerapen hori udal taldeen arteko adostasun faltari zor izan zitzaion.

- Kirol eta Kultura Patronatuak Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal-instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

- Ez da aurkitu 2011ko fakturarik 2012ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen dituela hornitzaileriei ordaintzeko epeak, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritakoak. Egiaztatu da, gaine-

ra, Udalak 2011n ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.

- Zizur Nagusiko Udalaren aurka 2011ko ekitaldian aurkeztutako errekurtsoen azterketa eginik, ondorioztatzen da Udalak ez dituela izanen, aldez aurretik esanda, nabarmentzeko moduko zenbatekoen erantzukizun ekonomikorik.

*Gure gomendioak:*

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agintzen duen epean egin eta onartzea.*

- *Patronatuak udal-zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.*

- *Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondasunak eta herri-ondasunak) eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*

- *Udal-inbentarioa eguneratzea eta onartzea, eta inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotze aldera eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratze aldera; horretarako, bereizirik idatzi behar dira lurzoruaren udal-ondareari dagozkion ondasunak.*

### VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,6 euro egiten du; hau da, 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 41 eta gastu arrunten ehuneko 43.

2010eko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 4 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2010	2011	
Goi-karguak	42.760	41.608	-3
Funtzionarioak	2.585.841	2.560.786	-1
Langile finkoak	561.027	492.301	-12
Aldi baterako lan-kontratupekoak	425.586	337.831	-21
Gizarte zamak	1.203.640	1.117.614	-2
1. kapituluak, guztira	4.818.854	4.610.140	-4

Aldi baterako langileen gastuaren beherapenaren arrazoia da, funtsean, 2010a izan zela enplegu tailerra jardunean aritu zen azken urtea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa 2011ko martxoaren 31n onetsi zuen behin betiko. 95 lanpostu dauzka eta horietatik 22 lanpostu daude hutsik 2011ko abenduaren 31n. Bes-

talde, Musika Eskolako Patronatuaren Batzordeak 2011ko plantilla organikoa 2010eko urriaren 19an onetsi zuen behin betiko. Plantilla horrek 13 lanpostu dauzka, eta abenduaren 31n horietako bakarra ere ez dago hutsik.

Bi plantilla horiek lanpostuen arabera banatzen dira, honako taulei jarraituz:

Zenbat	Lanpostuak	Lanean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
<i>A. Udala</i>	95	73	22	20
Funtzionarioak	84	67	17	15
Langile finkoak	10	5	5	5
Izendapen askekoak	1	1	-	-
<i>B. Musika Eskolaren Patronatua</i>	13	13	0	0
Funtzionarioak	0	0	0	0
Langile finkoak	13	13	0	0
Guztira	108	86	22	20

2011ko abenduaren 31n, 123 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde autonomoetan, eta era honetara banatuta daude:

Langileak	Udala	Musika Eskolaren Patronatua	Guztira
Uadlbatzarkideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	66	0	66
Lan-kontratudun finkoak	6	13	19
Administrazio-araubidean kontratatuak	2	0	2
Behin-behineko lan-kontratudunak	22	0	22
Aldi baterako lan-kontratudunak	11	1	12
Guztira	109	14	123

2010arekin alderatuta, 12 pertsona gutxiago daude enplegaturik, bereziki aldi baterako lan-kontratu gutxiago egin direlako.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	10
Zerbitzu ekonomikoak	7
Kultura	6
Kirola	5
Gizarte zerbitzuak	20
Hirigintza zerbitzuak	10
Lorezaintza zerbitzua	12
Segurtasuna eta babesa	23
Ikastetxea	7
Berdintasuna	2
Enplegu-agentea	1
Babestutako enplegu soziala	5
Udala, guztira	109

Langileen ehuneko 40 segurtasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan kontzentratuta daude.

2011n, honako bi kontratazio-prozedurak egin dira funtzionarioen lanpostuak betetzeko.

- Ikastetxeko etkezain izateko lau funtzionario lanpostu betetzeko lekualdatze-lehiaketa.
- Herritarrendako zerbitzuko administrari funtzionarioa izateko lanpostu bat betetzeko lehiaketa.

Bi espediente horiek aztertuta, ondorioztatzen da Udalak egoki betetzen duela indarrean dagoen araudia, administrazio publikoen zerbitzuko langileak sartzeko araubideari dagokionez.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2011n izoztu dira, eta egingako atxikipenak zuzenak dira. Edonola ere, ikusi da beti ez dela kontratu-modalitate egokia hautatu plantillan bete gabeko lanpostuak aldi baterako betetzeko.

2010ean egingako fiskalizazio txostenean aipatu genuen urte hartan ez zitzaizela Musika Patronatuko langileei aplikatu defizita gutxitzeko neurriei buruzko ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legean ezarritakoa. Musika Eskolako Patronatuko Batzordeak, 2011ko urriaren 5eko bileran onetsi zuen 2011ko urriaz geroztik dagokion murrizketa egitea eta data horren aurretik jasotako diru-kopuruak itzultzeko

formula bat bilatzea. 2011ko abenduaren 20an Batzordeak onetsi zuen murrizketa hori 2012ko lansarietan modu proportzionalean aplikatzea.

Azkenik, Udalean 2011n izandako absentismoa aztertu dugu. Guztira, lanera ez joateen 3.860 egun natural batu dira. Iraupen luzeko bajak kenduta (erreferentziatzat harturik 150 egun baino gehiagoko iraupena izan dutenak), guztira 2.100 egun ateratzen dira; datu hori 6 pertsona ingururi legokioke. Lanera ez-joateen arrazoi nagusiak aldi baterako ezgaitasunaren ondoriozko bajak, amatasun bajak, lan istripuak eta norberaren gauzetarako egunak izaten dira.

#### *Gomendioak:*

- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu-mota egokiak erabiltzea.*

### VII.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 5,6 milioi euro egin dute 2011ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 49,6 eta eragiketa arruntten gastuen ehuneko 52,5 egiten dute. 2010. urtearen aldean, ehuneko 1,3 egin dute gora.

Igoera hori, 2010eko datuekin alderatuta, justifikatzen da, funtsean, Udalaren materialen, horniduren eta gainerakoen kontusailekin lotutako gas-



tuek gora egin dutelako, eta gora egin dutelako, halaber, kirol sekzioen funtzionamendu gastuek. Hori guztia konpentsatu da, neurri handi batean, konponketa-, mantentze- eta kontserbazio-gastuek behera egin dutelako.

Kapituluhoni egotzitako honako kontratazio-espeditenteak aztertu dira. Espediente horiek betetze-fasean daude 2011ko amaieran (zenbatekoak BEZik gabeak dira):

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikatzeko prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Ardoi sektoreko lorezaintza iraunkorraren mantentzea	Laguntza	Irekia, europar atalasetik behera /eskaintzarik onuragarriena(*)	144.068	1	143.746
0-3 urteko haur eskolaren kudeaketa	Laguntza	Irekia, europar atalasetik behera /eskaintzarik onuragarriena	279.750	1	279.750
Zizur Nagusiko hiri-garbiketa	Laguntza	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	356.000	2	304.863
Kirol instalazioen funtzionamendua	Laguntza	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	610.000	3	603.800

eserba.

o

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia, honako salbuespen hauekin:

- Zenbait kontratutan legedia indardunak aipatzen duen indarraldi-epaia gainditu da.

- Ikusi da zenbait gastu errepikari halako zenbatekora iritsi direla urte amaieran, non dagokion kontratazio espeditentea abiarazi beharko bailitza-teke, nahiz eta gertaera hori ezin den beti modu arrazoituan aurreikusi.

- Fakturaren zenbatekoak adjudikazio-prezioa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean, ez da kontratuan egin beharreko aldaketa egiten, nahiz eta Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 108. artikulua hori ezartzen duen.

*Gure gomendioak:*

- *Egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*

- *Urteko gastuaren bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

- *Fakturatutako gastuak adjudikazio-zenbatekoa ehuneko 10etik gora gainditzen duenean, kontratuan egin beharreko aldaketak egitea, lege indardunean ezarritako moduan (Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 108. artikulua).*

#### VII.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,44 milioitan egin dute gora. 2011n sortutako gastu guztien ehuneko 4 egiten dute. Ez dago kapital-transferentziengatiko gasturik, ez ekitaldi honetan, ez 2010ekoan.

Honakoa da gastu horiek 2010eko ekitaldian eta 2011ko ekitaldian alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldaketaren ehunekoa
	2010	2011	2011/2010
Toki entitateei	9.204	28.566	210
Familiei	75.722	167.549	121
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	381.343	246.571	-35
4. Transferentzia arruntak	466.269	442.686	% -5

2010ekoekin alderatuta, gastu hauek ehuneko 5 egin dute behera, batez ere irabazi asmorik gabeko entitateentzako transferentziek behera egitearen ondorioz. Aurreko ekitaldian, Kirol Patronatuak kirol sekzioen funtzionamendu-gastu batzuk sartzen zituen. 2011n, ordea, gastu horiek ondasun arruntan eta zerbitzuen kapituluan sartzen dira, eta horrexek eragiten du kontusail honetan gastuak behera egitea. Halaber, garapenerako

laguntzek behera egin dute: 69.000 eurotik 50.000 eurora, hain zuzen.

Honakoak dira 2011n emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Eraikinen zaharberritzea	93.607
Familietan esku hartzeko programa	71.401
Futbol klubarentzako diru-laguntza	60.325
Garapenerako laguntza ekonomikoa	49.700
Saskibaloia fundazioarentzako diru-laguntza	36.041
Zizur Nagusiko banda	36.000
Guztira	347.074

Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak egoki betetzen duela indarra duen araudia, diru-laguntzak emateari dagokionez.

Udalak ez du ez ordenantza orokorrik, ez diru-laguntzen plan estrategikorik, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak hori ezartzen duen; hala eta guztiz ere, diru-laguntzen ematea berariazko ordenantzen bidez erregulatuta dauka.

*Gure gomendioak:*

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

## VI.5. INBERTSIOAK

2011. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (7,2 milioi) ehuneko 8 bete da, eta 0,6 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 5.

Kapitulua betetze-maila apala zor zaio, batez ere, 2011ko ekitaldian izandako legegintzaldi-aldaketarekin fiskalizazioaren xede den ekitaldirako onetsitako aurrekontuan jasotako obrak geratu izateari.

2010arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 93 –hau da, 8,5 milioi– egin dute behera.

Honakoak izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Kiroldegiko bi pista estaltzea	125.135
Kirol-instalazioen erreforma	93.316
Ikastetxeetan egindako inbertsioa	58.642

2011n egin eta baldintza bakar gisa kreditu-erreserba izatea, aurrekontua onartzea eta kasuko faktura aurkeztea zuten adjudikazioak aztertuta, ondorioztatzen da Udalak, oro har, kontratazioaren arloko araudi indarduna bete duela. Hala eta guztiz ere, honako egitateak nabarmendu nahi ditugu:

- Udalarri hirigintza arloko aholkularitza ematen dion enpresari, kasuko aurrekontua onartu ondoren, lau laguntza-lan adjudikatu zaizkio, obra jakin batzuk egiteko proiektuak idatz zitzaizkien. Egiaztatu da lan horiei dagozkien lau obrak mota desberdinetakoak direla eta exekuzio-aurrekontuan zenbateko desberdinak daukatela (0,1 milioitik milioi batera bitartekoak). Lan horiek alkatetzaren dekretu bidez adjudikatu dira egun berean –2011ko maiatzaren 6an–; horietatik hiruk 14.900 euroko kopuru bateratua egiten dute (BEZik gabe) eta laugarrenak, berriz, 15.000 euro (BEZik gabe).

- Aurreko kasuko mekanismo bera erabiliz, profesional bati bi laguntza kontratu adjudikatu zaizkio, tipologia eta aurrekontu desberdinetako udal instalazio batzuk eraikitzeke oinarritzko proiektuak idazteko. Egun berean adjudikatu ziren –2011ko maiatzaren 6an– eta zenbateko bateratu bera daukate, 15.000 eurokoa (BEZik gabe).

Aurreko zenbatekoak hurbil daude edo/eta bat datoz 15.000 euroko mugarekin (BEZik gabe); izan ere, muga horretatik aurrera, Udalak, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, kasuko kontratazio-espeditentia izapidetu beharko luke. Txosten hau egiteko egunean, Udalak ez ditu hasi, momentuz, sei obra horietako bakarria eraikitzeke lanak.

Gainera, lehenagotik adjudikatuta zeuden eta 2011n amaitu diren honako kontratuen betetzea aztertu da:

- Kiroldegiko bi pista estaltzea
- Zoladurak berritzea, 2010

Egindako azterketarekin egiaztatu da ez dagoela nabarmentzeko moduko desbideratzerik guztira aitortutako betebeharren eta adjudikatutako zenbatekoaren artean.

*Gure gomendioak:*

- *Hautapen prozesu guztietan bermatzea gardentasun, publizitate eta lehia askearen printzipioak betetzen direla.*

#### VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2011ko ekitaldian aitortutako eskubideak 13,3 milioikoak izan dira; ehuneko 97 eragiketa arruntengatik diru-sarrerei dagozkien eta ehuneko 3, berriz, kapital-eragiketeki.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak –5,7 milioi eurokoak– eta transferentzia arruntak –4,3 milioi eurokoak– nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak –0,4 milioi–.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 66,78koa izan da. Betetze maila txiki hori ia soilik heldu da aurreikusitako kreditu bat aurrekontuan sartzetik. 6 milioi euroko kreditu bat da, banku-entitate batzuekin hartutakoa, inbertsioak finantzatzeko. Kreditu hori, azkenean, ez da formalizatu.

Hirigintza-eragiketetatik (urbanizazio-kuotak) etorri diren diru-sarrerak 0,38 milioi egun dute gora, eta bat datoz partikular batzuekin 2010ean sinatutako hirigintza-itun batekin. Ardoi sektoreko plan partzialean eraikigarritasuna aldatzeko ituna zen. Aldaketa horrek berarekin zekarren aurreikusitako eraikigarritasuna eta etxebizitzaren tipologia aldatzea, eta Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen babesean egin zen.

2010. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 2 egin dute gora. Hona xehakapena:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea
	2010	2011	2011/2010
1. Zuzeneko zergak	3.010.842	3.120.865	4
2. Zeharkako zergak	286.946	2.624.633	815
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.607.964	2.352.152	-10
4. Transferentzia arruntak	4.932.147	4.310.629	-13
5. Ondare diru-sarrerak	349.825	492.153	41
<i>Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)</i>	<i>11.187.724</i>	<i>12.900.432</i>	<i>15</i>
6. Inbertsio errealeen besterentzeak	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	1.881.198	390.217	-79
8. Finantza-aktiboak	20.907	10.409	-50
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
<i>Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)</i>	<i>1.902.105</i>	<i>400.626</i>	<i>-79</i>
Diru-sarrerak, guztira	13.089.829	13.301.058	% 2

2011n, nabarmenezkoa da zeharkako zergen diru-bilketan (EIOZa) izandako igoera oso handia, bai eta transferentzia arruntan eta kapita-transferentzien bidezko diru-sarreraren jaitsiera oso handia ere, zeina heldu baita sektore publikoaren zati

batek gastu arruntetarako eta inbertsio-jardueretarako jaso dituen diru-laguntzen beherakadatik.

Ondorengo koadroan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubideak		Aldea, portzentajea
	2010	2011	2011/2010
Lurraldeko kontribuzioa	1.747.837	1.776.633	2
Ibilgailuak	603.386	626.347	4
Lursailen balioa handitzea	452.373	524.754	16
JEZ	207.246	193.131	-7
EIOZ	286.946	2.624.633	815
Guztira	3.297.788	5.745.498	% 74

Antzematen den aldaketa garrantzitsuena da EIOZa dela-eta izandako diru-bilketari dagokiona; izan ere, igoera handia izan du, 2011n Ardoi sektorean hasitako etxebizitzaren eraikuntza-lanengatik, hain zuzen ere 2010ean sektore horretako plan partzialan egin zen aldaketa baten ondorioz, aldaketa horrek eraikigarritasuna areagotzea ekarri baitzuen.

Halaber, hiri-lurren balio-gehikuntzarenengatik zergen diru-bilketan aldaketa portzentual handiak ikusten dira, kasu horretan zerga horren likidazioaren ondorioz, Udalak merkataritza-lokal batzuk erosi baitzituen 2010ean, bai eta jarduera ekonomikoengatik zergen diru-bilketan ere –diru-bilketa

hori jaitsi da egungo koiuntura ekonomikoaren ondorioz–.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2006an egin zen. Udala une honetan lanean ari da balorazio-ponentzia eguneratzeko, eta helburu du 2012an lan horri amaiera ematea eta 2013ko ekitaldiaren hasieratik koefiziente berriak aplikatzea.

Udalak aplikatutako tasak, lurraldearen kontribuzioaren eta lursailen balioaren igoerari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak ezartzen duen aukeraren tarte baxuan kokatzen dira; eta JEZari eta EIOZari dagokienez tarte altuan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraldeko kontribuzioa	0,165	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,86tik 3,16ra	2tik 3,6ra
Karga-tasa	9,65	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek ehuneko 2 igo dira, batez beste, 2010arekin alderatuta.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin bat azertu ondoren, egiaztatu dugu Udalak ez duela 2011n erregistratu 0,14 milioko zenbateko bat, abenduaren 31n mugaegunera iritsi zen epe laburreko gordailu batengatik jasotako interesei dagokiena. Interesak 2012ko urtarrilaren 2an kobratu ziren, eta Udalak kutxa-irizpidea erabili du haiek erregistratzeko.

#### *Gure gomendioak:*

- *Gaur egun egiten ari den balorazio-ponentziaren gaurkotzeari amaiera ematea, emaitza gisa lortzen diren balio berriak 2013ko ekitalditik aurrera aplikatzeko.*

- *Diru-sarrerak erregistratzea egiaz sortzen diren ekitaldian.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan

diharduten pertsonak hauek dira: bi ofizial, administrari laguntzaile bat eta aparejadore bat.

Horrez gainera Udalak kanpoko hirigintza-aholkularitza bat badauka –teknikoa eta juridikoa–, arkitekto talde batek egiten duena. 2011n, 22.962 euroko gastua ekarri du aholkularitza horrek. Ez dago jasota kontraturik dagoenik.

Zizur Nagusiko Udalaren plana 2004an onetsi zen, eta alderdi garrantzitsuetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari egokitzen zaio.

2011n, Ardoi sektoreko hirigintza-garapenak jarraitzen du, Hirigintza eta Etxebitzaren arloan Urgentziazko Neurriak Hartzeko 6/2009 Foru Legeko zehaztapen berrien arabera. Obra-lizentziak eman dira honakoak egiteko: babes ofizialeko 227 etxebizitza, prezio tasatuko 318 etxebizitza eta 44 etxebizitza libre.

Udalaren lurzoru-ondarea erakundearen gainarako ondasunetatik bereizita kudeatzen eta erregistratzen da. Honakoa da haren osaketa 2011ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Ondasunak	4.687.603
Diru-sarrerak	24.595.762
Guztira	29.283.365

Udalak badauka hirigintza-hitzarmenen erregistro gaurkotua. Haren irakurketatik eratorren da 2011ko ekitaldian ez dela hirigintza-hitzarmen berririk egin, eta ez dela, ezta ere, hirigintza-jarduketa garrantzitsurik egin.

#### *Gomendioak:*

- *Hirigintzako laguntza teknikoko lanetarako behar den hautapen-prozedura egitea.*

## VI.8. ERAKUNDE AUTONOMOAK

### VI.8.1. Kultura Patronatua

Kultura Patronatua sortu zen Zizur Nagusiko biztanleen partaidetzarako ildo eta gizarte- eta kultura-erreferentziarako gune gisa, eta gisa honetako jarduerak garatu izan ditu: ikastaroak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako hitzaldiak, antzerki- eta dantza-ekitaldiak, entzunaldi eta kontzertuak, proiektzioak, erakusketak, liburutegia.

Kultura Patronatuak ez du langile berekirik, haren langileak Udaleko langileen multzoan sartuta baitaude. 2011ko abenduaren 31n, 5 funtzionario ok eta behin-behineko lan-kontratadun pertsona batek osatzen zuten patronatua.

2011n, 0,5 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntanak eta zerbitzuenak– eta 0,47 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakapena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	109.150
Udalaren diru-laguntza	279.144
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	43.122
Enpresa pribatuen diru-laguntza	35.345

Patronatuak gastuen ehuneko 22 ordaintzen ditu diru-sarrera berekiekin.

Haren jarduera nagusiak hirugarrenei adjudikatzeko zaizkie kasuko kontratuaren bitartez. Kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez izapidetzen dira.

### VI.8.2. Kirol Patronatua

Kirol Patronatua zenbait ataletan dago banaturik. Atal horiek kudeatzen eta garatzen dituzte

Zizur Nagusiko biztanleei eskaintzen zaizkien kirol jarduerak. Ez du langile berekirik, langileak Udaleko langileen multzoan sartzen baitira. 2011ko abenduaren 31n, 3 funtzionario ok eta behin-behineko lan-kontratadun bi pertsonak osatzen zuten patronatua.

2011n, 0,54 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntanak eta zerbitzuenak– eta 0,51 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakapena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	311.995
Udalaren diru-laguntza	157.738
Beste diru-laguntza batzuk.	36.745

Patronatuak gastuen ehuneko 58 ordaintzen ditu diru-sarrera berekiekin.

Haren oinarriko kirol jarduerak hirugarrenekin kontratatzen dira prozedura negoziatuaren bitartez. Kontratu hauek urtebetekoak izaten dira, eta gehenez ere lau urterako luzatzeko modukoak.

2011ko irailean 18.861 euroko gehieneko prezioan (BEZik gabe) adjudikatutako kirol jardueren proiektu baterako (ur-jarduerak eta neuropsikomotrizitatea) laguntza-kontratuaren legezkotasuna aztertu dugu, eta ez dugu inolako gorabeherarik aurkitu.

### VI.8.3. Musika Eskolaren Patronatua

Musika Eskolaren Patronatuak Musika Eskola kudeatzeko zerbitzua ematen du, eta honako jarduerak garatzen ditu: instrumentazio eskolak, entzunaldiak, kontzertuak eta abar. Patronatuak bere plantilla organikoa eta bere langileak dauzka: 13 lan-kontratupeko langile finko eta lanaldi partzialeko behin-behineko lan-kontratua duen pertsona bat dira langile horiek 2011ko abenduaren 31n.

0,48 milioi euroko gastuak dauzka, zeinak ia guztiz langile-gastuei baitagozkie.

Diru-sarrerei dagokienez, 0,49 milioi, funtsean, honakoetatik datoz:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikulak eta ordainagiriak	201.299
Udalaren diru-laguntza	194.149
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	81.308
Enpresa pribatuen diru-laguntza	16.631

Patronatuak gastuen ehuneko 42 ordaintzen ditu diru-sarrera berekiekin.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala propo-

satuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

